

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

9. zenbakia

Data 2007-01-12

908 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Donostiako Gazteen Aholkulari Kontseiluaren erregelamendua. Behin betiko onespena.

DONOSTIAKO UDALA

Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

Donostiako Gazteen Aholku Batzordearen Arautegiaren Behin Betiko Onarpena.

Donostiako Udalbatzak 2006ko martxoaren 17ko osoko bilkuran, Donostiako Gazteen Aholku Batzordearen Arautegia behin betiko onartzea erabaki zuen.

Erabakia behin betiko da, eta buru ematen dio administrazio bideari. Honekin ados egon ezean, hilabete dago birjarpeneko errekurtsua jartzeko Udalbatzarraren aurrean, edo, bestela, zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailean, bi hilabete baino lehen.

Esandako epeak iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira.

Apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arauzkotzeko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, aipatu Araudiak argitara ematera goaz.

Donostia, 2006ko abenduaren 22a.—Txuri Aranburu Garcia, Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaria. (157)

GAZTEEN AHOLKU BATZORDEA

ARAUTEGIA

ZIOEN ADIERAZPENA

Jendaurreko III. entzunaldian, 2004ko maiatzean, Nolako harremanak ditugu hiriarekin? Donostian bizikidetzeta baketsua izateko proposamenak gaiari buruz aritu ziren. 17 ikastetxek eta gazte erakundek parte hartu zuten, eta ondorio eta eskakizun gisa planteatu zen gazteen parte-hartzeak aktiboagoa izan behar zuela udal bizitzan. Horretarako, udal politikei dagokienez, informazioa eskuratzea errazten dien erakunde iraunkorra erabili behar dute, bai eta eztabaidatzea zein parte-hartze erreala ere.

Udal gobernuak egindako Gazteentzako 2003 - 2007 Ekintza Planaren arabera, Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Saila Tokiko Gazteria Plana gauzatzen ari da. Hor barne hartzen dira hiriko sektore garrantzitsu horrentzat Udalak proposatu dituen jarduerak.

Plan Estrategikoan jasotako helburuetako bat Donostia gaztetzea dela kontutan hartuta, «Gazteen Aholku Batzordea» delako Batzorde Sektorial bat sortzea proposatzen du, hots, parte hartzeko organo iraunkorra. Organo horren bidez herritar gazteenen parte-hartzea sustatu eta dinamizatu egingo da hiria eraikitzekeo prozesuan.

Konpromiso honekin akort, udalean gazteen partaidetza bultzatzeko helburuarekin eta udalean herritarren partaidetzako eta bereziki Batzorde Sektorialean auzoko partaidetzako hainbat aspektu arautzen duten Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearekin (7/85) eta honen Antolamendu Araudiarekin (256/86 Dekretua) konforme sortzen da Gazteen Aholku Batzordea arautzen duen arautegia.

Udalaren nahia, herritarrei, politika, ekonomia, kultura eta gizarte gaietan partaidetzarako bideak irikitzea da, pertsonen garapen oso bat errazteko eta kudeaketa publikoan herritarren inplikazio handiago bat lortzeko.

Gai publikoetan eta bereziki gertukoak zaizkien gaietan (udalekoak) parte hartzeko, herritarren eskubidea sustatu eta aditzera eman beharra dago eremu guztietan eta gizarte talde guztiek gauzatu behar dute.

Norberaren bizitzari eta bizi den komunitateari eragiten dieten erabakiak batera hartzeko prozesua da parte-hartzea. Oinarritzko eskubidea da, eta unibertzala, bai haurrentzat eta gazteentzat ere. Giza eskubideak babesteko tresnek (Giza Eskubideen Deklarazioa, Haurren Eskubideen Konbentzioa) eta Europako eremuko erabakiek eta jarraibideek (Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen 2001/19 Gomendioa, herritarrek tokiko bizitzan duten parte-hartzeari buruzkoa) onartzen dute haurrak eta gazteak funtsezkoak direla demokraziaren balioak garatzeko eta hiria eraikitzekeo.

Parte hartzeko eskubidea dutela esaten dugunean, ez gara ari botoa emateko eskubideari buruz; egiazko herritartzat jo behar dira, informazioa jasotzeko eta zabaltzeko eskubidea izan behar dute, bai eta iritzia emateko eta entzun diezaieten eskubidea zein gizarte bizitzan aintzat har ditzaten eskubidea ere. Horrela, gaur egun arte egin diren Jendaurreko Entzunaldietan zehar lortu den esperientziaren arabera, Aholku Batzorde hau esparru iraunkor bilakatuko da hausnartzeko, eztabaidatzeko eta udalaren ekintzetan aintzat hartuko diren ekimenen proposamenak aurkezteko.

Begi bistakoa da etxebizitza, enplegua, hezkuntza, garapen iraugarria, kultura, kirola eta aisia, eta bereziki eskola arteko erlazioak eta sexu heziketa, zuzenean eragiten dieten gaiak direla; era berean, aipatze-koa da gazteek gizabidearekin eta berdintasunezko gizarte tolerantzia sortzearekin duten konpromisoa, hori baita hirirako etorkizun hobea eraikitzeko aukera bakarra.

Askotan pentsatzen da gazteriak ez duela interesik hiriko gizarte eta politika arazoetan. Beharrezkoa iruditzen zaiguna zera da, beraien partaidetza aktiboa eta iraunkorra lortzeko bideak erraztea.

Euskadiko Gazte Kontseilua Eusko Jaurlaritzako 6/1986 legeak, maiatzaren 27koak, sortu zuen. 30 urte arteko gazteak ordezkatzeko ditu, eta zalantzarik gabe izaera instituzionala du. Gure ustez, eraketa itxia eta arautua du eta sektore garrantzitsuak parte hartzeko biderik gabe uzten ditu, nahiz eta garrantzi handiko funtzioak bete, eta kontuan hartuta gazteen parte-hartzea txikia dela erakunde politikoetan zein elkarteetan.

Donostiaren sektore horren ezaugarriengatik hain zuzen, ez dugu nahi organo zurruna edo itxia sortu; alegia, gazteei atak nahi dizkiegu ireki, erakundeetako kide diren ala ez alde batera utzita, ideiak eta irizpideak baitituzte herritarren bizitzari eta udal ekintzei buruz, eta, zehazki, zuzenean eragiten dien orori buruz.

Gaur egungo gizarteak, baita Donostiakoa ere, interes pertsonalen edota taldeko interesen araberrako baloreen erlatibizazio prozesu batean murgilduta dago. Aholku Batzordeak, ekintza zehatzen bidez, herritarren bizitza demokratikorako oinarrikoak diren baloreak sustatuko ditu; bakea, berdintasuna, gizarteratzea, tolerantzia eta partaidetza arduratsua. Batzordeak elkartu nahi dituen neska-mutilen adinak funtsezkoak dira, taldean banakotasun integratu eta arduratsu baten garapena lortzeko.

Batzordeak, lehen azaldutako limiteak kontutan izan arren, gazte-elkartegintzak parte hartze arduratsuari dagokion faktore erantsi bezala duen garrantzia onartzen du. Zentzu honetan, jarrera positiboa erakutsiko du honen aurrean eta bultzatuko du.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izaera.

1. Donostiako Gazteen Aholku Batzordea parte hartzeko organo iraunkorra da. Udalaren jardueraren inguruan aholku ematea, informatzea, eztabaidatzea, aztertzea eta ekimenak eta zerbitzuak proposatzea izango dira haren zereginak, eta gehienbat 13 eta 17 urte bitarteko gazteek hartuko dute parte.

2. Aholku Batzordea araudi honek zuzenduko du, bai eta udalaren arau organikoek eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek ere.

3. Aholku Batzordeak, Udalari dagokionez, autonomia funtzionala izango du.

4. Gazteen Aholku Batzordea Herritarren Partaidetzako Araudian jasota dagoen udal batzordeen sarearen baitan dago, eta herritar gazteenen kezkek eta ekimenak bideratzeko egitura da.

2. artikulua. Helburuak.

Honako hauek dira Donostiako Gazteen Aholku Batzordearen helburuak:

1. Gazteei parte-hartze aktiboa eta iraunkorra egiteko bidea eskaintzea, hiriko gizartearen, kulturaren eta demokraziaren garapenari loturiko gaietan.

2. Gazteen artean demokrazia, elkartasuna, gizabidea, desberdintasunekiko errespetua, berdintasuna eta bake bizikidetzaren balioak sustatzea.

3. Gazteei buruzko politikei eta/edo gazteen interesekoak diren politikei dagokienez, udal administrazioaren aurrean bitartekari izatea.

4. Udal kudeaketari loturiko neurriak proposatzea eta iradokizunak egitea.

5. Aholku batzordeari entzun diezaioten bermatzea eta iritzia ematea, haren interesei edo arazoei zuzenean lotutako jarduerak onartu baino lehen.

6. Aholku Batzordean ordezkari ez diren pertsonen edo taldeen ekimenak eta iradokizunak jasotzea eta bideratzea. Horretarako, hainbat bide sortuko da, bereziki informazio teknologia berriei lotuak.

3. artikulua. Zereginak.

Donostiako Gazteen Aholku Batzordeari dagozkio honako zeregin hauek:

1. Gazteria arloko ekimenak proposatzea eta bultzatzea.
2. Gazteen kezak eta ekimenak bideratzea, gazteen interesa sortarazten duten eta udal eskumena duten gai zehatzei dagozkienak.
3. Donostiako Udalak Gazteria arloan egiten dituen jarduera planak zuzentzeko lehentasunak eta irizpideak proposatzea.
4. Gazteriari lotutako gaiak eztabaidatzeko plataforma izatea.
5. Donostiako Udaltzaren aurrean eta/edo gobernuko organoen aurrean Aholku Batzordearen eskumenekoak diren gaietan proposamenak aurkeztea, haiei buruz iritzia eman dezaten.
6. Gazteria arloan Udalak egindako jarduerak balioztatzea.
7. Gazteriari lotutako gaien buruzko azterketak eta/edo txostenak egitea.
8. Gazteen arteko jokoaren berdintasunerako ekintzak sustatzea.
9. Bakean oinarritutako bizikidetzak bultzatzen duten ekintzak sustatzea.
10. Ekintza eta iniziatiba zehatzen proposamenak egin edo sustatu, berdintasunean, tolerantzian, erantzukizunean eta indarkeria ezean oinarritzen den herritar espiritu kritikoa eta parte-hartzailea gazteengan zabalteko.

11. Donostiako Gazteen Aholku Batzordeak egindako lana Donostiako herritarrei aldi-aldi ezagutaraztea. Batzordeak lankidetzak sustatuko ditu eta harremanak finkatuko ditu, bai partaidetzako beste udal organoekin, baita gazteria arloan eskumenak dituzten beste erakundeekin ere.

12. Aholku Batzordeak erabakitako beste edozein zeregin.

4. artikulua. Funtzionamendua.

1. Aholku Batzordeak ohiko bilkura egingo du gutxienez hiru hilean behin.
2. Ez ohiko bilkurak deitu ahal izango dira, izaera bereziko gaiak direla medio, hala nola ez ohiko jarduerak edo salbuespenezko egoerak.
3. Aholku Batzordea baliozkoa izan dadin, botoa emateko eskubidea duten legezko kideen herenak egon behar du bertan.
4. Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdia gutxienez zazpi egun lehenago egingo da, premiazko bilkura bereziena salbu.
5. Akordioak gehiengo soilez hartuko dira, xedapenen batek gehiengo osoa eskatzen duenean izan ezik.
6. Aholku Batzordeak Udaltzaren Gobernuari eta Udaltaldeei helaraziko dizkio iritzia, proposamenak eta ekimenak, eta Donostiako gizartearen ezagutzera emango dizkio, aintzat har ditzaten.
7. Aholku Batzordeak beharrezkotzat jotzen duenean, hala eskatzen duten gazteak zein, jorratuko diren gaiengatik, egoki irizten zaien gazteak parte hartzera gonbidatuko dira.
8. Urtero memoria egingo da Aholku Batzordeak gauzatutako lanari buruz; Aholku Batzordeak hobeto funtziona dezan iradokizunak jasoko dira, eta Udaltzari helaraziko zaizkio. Bertan, Udaltzaren Gazte Politikari buruzko ebaluaketaren aipamena egingo da.
9. Udaltzaren Herritarren Partaidetzako Sailaren bitartez, Gazteen Aholku Batzordea partaidetzako beste udal organoekin harremanetan egoteko bideak bilatuko ditu. Eta bereziki, gazteekin erlazionatutako partaidetza egiturekin, aldi-aldi ospatzen diren Entzunaldi Publikoak izan daitezkeen bezala.
10. Udaltaldeek eskura izango dute Aholku Batzordeak sortutako dokumentazio guztia, Idazkaritzaren bitartez.

II. KAPITULUA

AHOLKU BATZORDEAREN OSAKETA

5. artikulua. Erabateko kideak.

Honako hauek izan daitezke Donostiako Gazteen Aholku Batzordeko kide:

1. Lehendakaria: Alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotzia.
2. Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzak eta Giza Eskubideetako zinegotzia.
3. Udaltalde bakoitzeko ordezkari bat.
4. Hala nahi duten Donostiako ikastetxe publikoetako zein ikastetxe pribatuakordezkari gazte bat.

5. Udaleko Elkartearen Erregistroan izena emanda duten, eta gazteen jardueri loturik dauden erakundeetako edo elkarteetako ordezkari gazte bat. (Astialdiko klubak, Gaztelekuak, kirol, kultura edo aisialdi elkarteak, etorkinen elkarteak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, eta abar) eta Aholku Batzordean parte hartu nahi dutenak.

6. Aholku Batzordean parte hartzeko interesa duten gazteak.

7. Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteriaren Kontseiluko kide bat.

8. Donostiako Unibertsitateetako Ikasle Batzordeek hautatutako ordezkari bat.

6. taldeko ordezkarien botoek ezingo dute 4. eta 5. Taldeko ordezkarien botoen 1/3 bat gainditu.

Udalak, mutilen eta nesken arteko berdintasuna mantentzera eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legea betetzera eragingo ditu taldekideak.

Ordezkari guztiek, gizarte eta herritar demokratikoak eta askeak indartzeko konpromisoa izan behar dute, bai eta errespetuan, justizian eta tolerantzian oinarritutako mundu baketsua eraikitzeko nahia ere.

6. artikulua. Kide behatzaileak.

Honako hauek izan daitezke Donostiako Gazteen Aholku Batzordeko kide behatzaileak:

1. Idazkaria.

2. Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Saileko ordezkari teknikoak.

3. Udaleko sailen ordezkari teknikoak.

4. Hala nahi duten Donostiako ikastetxe publikoetako zein ikastetxe pribatuetako ordezkari gazteak.

5. Udaleko Elkartearen Erregistroan izena emanda duten, eta gazteen jardueri loturik dauden erakundeetako edo elkarteetako ordezkari gazteak. (Astialdiko klubak, Gaztelekuak, kirol, kultura edo aisialdi elkarteak, etorkinen elkarteak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, eta abar) eta Aholku Batzordean parte hartu nahi dutenak.

6. Aholku Batzordean parte hartzeko interesa duten gazteak.

7. Jardungo den gaian garrantzitsuak diren pertsonak.

7. artikulua. Aholku Batzordearen sartzea.

1. Aholku Batzordeko kide izateko, 5. eta 6. artikuluetako 4., 5. eta 6. taldeetako ordezkariak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gehienbat 13 eta 17 urte bitarte izatea.

b) Donostian bizitzea.

2. Aholku Batzordean sartu nahi duten gazteek Lehendakariari helarazi beharko diote eskakizuna.

3. Aholku Batzordeak, urtero eta ikasturtearen hasiera dela eta, bere ekintza gazteekin erlazioa duten elkarte eta erakundeetan eta hiriko ikastetxeetan sustatuko du, eta bertan parte hartzeko beharra zabalduko du eta zein baloretan oinarritzen den azpimarratuko du. Hau guztia, ahalik eta partaidetza handiena eta anitzena lortu ahal izateko.

Era berean, eta aukera duen neurrian, Batzordea osatuko duten ordezkarien hautaketa demokratikoa bultzatuko du.

8. artikulua. Erabateko kidearen galtzea.

1. Honako arrazoi hauek hartuko dira kontuan, pertsona bati Aholku Batzordeko kide izatea galarazteko:

a) Kidearen beraren borondatea.

b) Aholku Batzordeko kide izateko eskakizunen bat betetzeari uztea.

c) Arautegia behin eta berriz ez betetzea.

d) Aholku Batzordearen printzipio eta helburuen kontrako jokabideak, jarduerak edo adierazpenak.

2. Aholku Batzordearen osoko batzarrak erabakiko du Aholku Batzordeko kide postutik kentzea, dagokion espedientearen izapideak egin eta gero. Espediente horretan, erakundeari edo pertsonari entzun beharko zaio.

III. KAPITULUA

GOBERNU ORGANOA

9. artikulua. Aholku Batzordearen egitura.

Aholku Batzordeko antolamenduan honako lan organoak egongo dira:

1. Osoko batzarra.
2. Lehendakaritza.
3. Idazkaritza.
4. Lan batzordeak.

10. artikulua. Aholku Batzordearen osoko batzarra.

Osoko batzarra da Donostiako Gazteen Aholku Batzordearen organo gorena. Osoko batzarra lehendakariak, idazkariak eta 5. eta 6. artikuluetan aipatzen diren kide guztiek osatzen dute.

Osoko batzarraren zereginak honako hauek dira:

1. Aholku Batzordearen jarduera ildo orokorrak zehaztea, eta ildo horiek betetzen direnentz zaintzea.
2. Lan batzordeak sor daitezen adostea.
3. Kide guztien gehiengo osoa izanda, Donostiako Udalari arautegi hau alda dezan proposatzea.
4. Udalak gazteen alorrean dituen jarduera ildoetara, programazioari eta programak gauzatzeari buruzko txostena egitea.
5. Erakundeko organoren batek hala eskatzen duenean, edota, ofizioz, hala erabakitzen duenean, Aholku Batzordearen osoko batzarrak gai jakin batzuei buruzko irizpenak eman ahal izango ditu. Era berean, batzarraren beraren zereginetan eragina izan dezaketen proiektuei, programei, planei edota xedapen orokorrei buruzko iritzia eman ahal izango du.

6. Beste kide batzuk sar daitezen eta sartuta daudenak atera daitezen onartzea.

Osoko batzarraren funtzionamendua hauxe izango da:

1. Aholku Batzordearen osoko batzarrak hiru hilean behin izango du ohizko bilkura. Lehendakariak alde zuzeneko egongo du deialdia. Ohizko bilkura horien deialdia gutxienez zazpi egun lehenago egongo da.
2. Ohiz kanpoko batzarra lehendakariak nahi duenean edota Aholku Batzordeko kideen bi herenek nahi dutenean egongo da.
3. Gai zerrenda Aholku Batzordeko lehendakariak egoki deritzen gaiekin eratuko da. Aholku Batzordeko gainerako kideek egiten dituzten proposamenak ere sartuko dira.
4. Eztabaidan eta, hala dagokionean, bozketan sartuko diren gai zerrendako gaiei buruzko dokumentazioak idazkaritzan izan behar du, Aholku Batzordea osatzen duten kideen eskura. Dokumentazio horrek deialdiaren egunetik bertatik egon behar du gertu.
5. Osoko batzarra baliozkoa izan dadin, legezko kideen herenak egon behar du bertan. Nolanahi ere, lehendakariak eta idazkariak –edo haien ordezkariak– batzarrean egon behar dute beti. Quorum hori bilerak irauten duen bitartean mantendu behar da. Lehen deialdian beharrezko quorumik ez badago, ordu erdi geroago osoko batzarrerako deialdia automatikoki egin dela joko da. Hori gertatuz gero, nahikoa izango da osoko batzarrerako 5 kide joatea batzarra baliozkoa izateko.
6. Osoko batzarreko erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, xedapenen batek gehiengo osoa eskatzen duenean izan ezik.
7. Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideetako saileko teknikariak nahiz gai horretan adituak izateagatik edota gai horri buruzko ezagutza berezia izateagatik gonbidatutako pertsonak joan ahal izango dira osoko batzarretara.

11. artikulua. Lehendakaritza.

Alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotzia izango da osoko batzarreko lehendakari.

Aholku Batzordeko lehendakaria da batzordearen ordezkari gorena. Honako zeregin hauek bete behar ditu:

1. Osoko batzarrerako deialdiak egitea eta gai zerrenda zehaztea.
2. Osoko batzarretako buru eta moderatzaile izatea. Era berean, batzarreko eztabaidak koordinatzea, haren erabakiak gauzatzea eta, berdinketarik izanez gero, bozketak ebatzea.
3. Arautegi hau aplikatzeko egon daitezkeen zalantzak argitzea; horretarako, alde zuzeneko Idazkaritza Nagusiari kontsulta egin.
4. Aholku Batzordearen helburuak bete daitezen zaintzea. Orobat, Aholku Batzordearen jarduerak arautegian xedatutakoa betetzen duten zaintzea.
5. Aholku Batzordearen osoko batzarrak hartutako erabakien berri ematea Udalbatzari.
6. Aholku Batzordearen osoko batzarrak ematen edo eskuordetzen dizkion zereginak betetzea.

12. artikulua. Idazkaritza.

Idazkari nagusia edo hark eskuordetzen duen pertsona izango da Aholku Batzordeko idazkari.

Idazkaritza da Aholku Batzordearen kudeaketa administratiboaz eta teknikoaz arduratzen den organoa. Idazkaritza Aholku Batzordeko organoen bilkuretarako joango da, hitzarekin baina botorik gabe.

Honako hauek dira idazkaritzaren zereginak:

1. Lehendakaritzaren aginduz, bilkuretarako deialdiak egitea eta igortzea.
2. Lehendakaritzari laguntzea, karguari dagozkion arazo guztietan.
3. Bilkuren akta egitea. Onespena eman aurretik, akten zirriborroa bidaliko da.
4. Jakinarazpenak, datu eskariak, zuzenketak edo, bere karguagatik, ezagutu behar duen beste edozein idazki jasotzea.
5. Akten artxiboa, Aholku Batzordeko kideen erregistroa, eta organo bakoitzeko ordezkarien zerrenda eguneratuta izatea.
6. Aholku Batzordearen osoko batzarrak hartutako erabakien lekukotza ematea.
7. Aholku Batzordeko organoek esleitutako zeregin guztiak.

13. artikulua. Lan Batzordeak.

Lan batzordeak aztertze organoak dira, eta haien eginkizuna da esleitu zaizkien helburuetarako egoki diren txostenak, proposamenak eta jarduerak egitea. Egiten duten oro Aholku Batzordearen osoko batzarrari jakinaraziko diote, dagozkion erabakiak hartzeko.

Lan batzordeak udaleko langileen laguntza izan ahalko du, edota aztertzen den gaian adituak edo jantziak diren pertsonena.

IV. KAPITULUA

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

14. artikulua.

Donostiako Gazteen Aholku Batzordeak berri emango die hiriko gainerako gazteei zein herritar guztiei bere kudeaketari buruz eta bere jarduera eremuari loturiko gai guztiei buruz. Horretarako, eskura dituen eta egoki deritzen bideak eta informazio ekitaldiak erabiliko ditu. Halaber, iritzia eskatu ahal izango die gazteei eta gainerako herritarrei eztabaiden, bileren, argibide eskaeren edo inkesten bidez, edo egoki deritzon beste edozein bide erabilita.

15. artikulua.

Donostiako gazteek osoko batzarrean parte hartzeko eskaera egin ahal izango dute, informazioa jasotzeko edo Aholku Batzordeari jarduera jakin batzuk egitea proposatzeko.

Eskaera idazki arrazoitu baten bidez egingo da, eta lehendakaritzari bidaliko zaio. Eskaerarekin batera, proposatu nahi den gaia ezagutzea ahalbidetuko duten beharrezko eta behar besteko informazioa edo dokumentuak bidaliko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Hasiera batean, Aholku Batzordea 5. artikuluko 4., 5. eta 6. taldeetako 13 eta 17 urte bitarteko ordezkariekin modu baliogarrian eratu ahal izango da.

5. artikuluko 8. taldeko ordezkariak gabe modu baliogarrian eratu geratuko da ere.

AZKEN XEDAPENA

Aholku Batzordeak arautegi honen idatzi argitzaile bat prestatuko du. Hizkuntza eta estetika aproposa eta egokitua izango duen idatzi hau gazteekin erlazioa duten elkarte eta erakunde guztietan banatuko da, Donostiako mutilen eta nesken partaidetza ahalik eta gehien bultzatzeko. Hezitzaileen, irakasleen, gurasoen eta tutoreen laguntza eskatuko da, mota honetako inizatibetan gazteak parte hartzera motibatuzko.